



Sare sozial korporatiboen maneu seguru a Checklist

- Mugatu plataformak pribatutasun-konfigurazioaren bidez bildu ditzakeen datuak.
- Identifikatu kontuak administratzeko baliatzen diren gailuak.
- Kontrolatu kontuetarako sarbidea duten hornitzaileak.
- Monitorizatu etengabe erakundearen sare sozialetako kontuak ezohiko portaerak detektatzeko.
- Kontzientziatuta eduki kontuak administratzen dituzten pertsonak, arriskuen murrizketan jokatzen duten paperaz jabeaz.
- Ezarri gorabeherei erantzuteko plan bat:
 - Barnean hartu egoera jakin batzuen aurrean espero diren hartu beharreko ekintzak, hala nola baimendu gabeko sarbide edo argitalpenak, konprometitutako gailuak eta komunikazio pribatuen zabalkundea.
 - Barnean hartu gorabehera bat agintari eskudunei jakinarazteko moduari buruzko orientazioa.
- Barnean hartu arau-hauste bat gertatuz gero egokiak diren sare sozialetako plataformen harremanetarako informazioa.
- Kudeatu segurtasunez kontuak eta kredentzialak:
 - Erabili faktore anitzeko autentifikazioa (MFA).
 - Mugatu administrazio-kontrola duten pertsonak.
 - Sare sozialak edo hura kudeatzeko erremintak ahalbidetzen badu, erabiltzaile bakoitza bere kredentzialekin sartu dadila.
 - Egiaztatu erregularitasunez administrazio-rola duten pertsonen zerrenda. Aztertu zehatzago erakundearen-tzako sentsibilizazio handiagoko uneetan.
 - Aztertu saioa irekitzeko eta ixteko ekitaldiak, baimen-aldaketak edo ezohiko edozein jarduera.
 - Mugatu sare sozialen kontuetarako hirugarrenen sarbidea, gehiegizko pribilegioak eskatu ditzaketelako eta informazio pribatua agerian jarri dezaketelako.
 - Egiaztatu beharrezkoa ez den ezein aplikazio ezin daitekeela sartu erakundearen kontuetan.
 - Kudeatu APLEk modu seguruan erabiltzen dituzten tokenak, kontuarekin eragitea ahalbidetuko baitute erabiltzaile-izenak edo pasahitzak eskatu gabe.
 - Ziurtatu pasahitzek eta tokenek jardunbide egokienak ditzutela luzerari eta konplexutasunari dagokienez.
 - Eduki indarrean pasahitzak eta tokenak aldi behin aldatzea ekarriko duen politika jakin bat. Ez partekatu edo idatzi kredentzialik.
 - Aldatu berehala kredentziala pasahitz bat edo token bat konprometitu izan dela adierazten duen zantzen bat edo susmoren bat badago.
- Definitu eta indarrean eduki gutxienez dokumentu honetan planteatutako gaiak kontuan hartzen dituen sare sozialetako politika bat, eta horrekin batera, sare sozialetako kontuak babesten laguntzeko erakundeak beharrezkoa dela uste duen beste edozein babes.

Babesteko moduari buruzko informazio gehiago jakin nahi baduzu, sartu zaituz webgune honetan:
<https://www.basquecybersecurity.eus/eu/>

Aholkularitza profesionala behar baduzu, webgunean eskuragarri duzun Euskadiko ziberseguratsun-hornitzaileen katalogoa kontsultatu dezakezu.